



ENERGIA GARBIEN ERABILERA BABESTEN

Arrasateko egoitza nagusiko eraikinen osoko birgaitzean iraunkortasunari eta energia-eraginkortasunari loturiko irizpideak hartu ditugu kontuan.

Hainbat aukera aztertu ostean, energia berriztagarrien aldeko hautua egin da; aukeraturiko nahasketa, hain zuzen, geotermia- eta biomasa-sistema izan da.

Jarraian abantaila nagusiak azalduko ditugu:

- Erregaien prezioaren bilakaerarekiko independentzia handiagoa
- Gasolio-depositua eta hozte-dorrea kentzea
- Energiaren kontsumoan % 50 inguruko aurrezpena
- CO2 isuri gutxiago
- Tokiko erregaiak erabiltzea (zurezko txirbila)